

SSIFF 

**Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival**

Jasangarritasuna ebaluatzeko eta karbono-aztarna neurtzeko txostena 2022

sansebastianfestival.com

   #71SSIFF

Babesle Ofiziala
Patrocinador Oficial
Official Sponsor

rtve

Media Partner

M+

Laguntzaile Ofizialak
Colaboradores Oficiales
Official Collaborators



k
kutxabank

Instituzio Kideak
Instituciones Socias
Associated Institutions



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE CULTURA
Y DEPORTE





SSIFF

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

Instituzio Kideak
Instituciones Socias
Associated Institutions



Babesle Ofiziala
Patrocinador Oficial
Official Sponsor



Media Partner



Laguntzaile Ofizialak
Colaboradores Oficiales
Official Collaborators



Aurkibidea

01. Sarrera	4
02. Helburuak	4
03. Metodologia	5
04. Prozesua	6
05. Neurketa	7
• Ostatatzea	8
• Mugikortasuna	9
• Energia	11
• Cateringa	12
• Materialak	13
• Hondakinak	14
• Ura	16
06. Hots- eta argi-kutsadura	18
07. Konpentsazioa	18



01. Sarrera

2019. urtea ordura arteko bigarren urterik beroena izan zen, eta inoiz erregistratu den hamarkadarik beroenaren (2010-2019) amaiera markatu zuen. Karbono dioxidoaren (CO₂) eta atmosferako berotegi-efektuko beste gas batzuen mailak markak hautsi arte igo ziren 2019an.

Klima-aldaketak herrialde guztiei eragiten die neurri handiagoan edo txikiagoan; hain zuzen, haien ekonomia astintzen du, sistema meteorologikoak aldatzen ditu, itsas maila igozten du eta gero eta muturrekoagoak diren fenomeno meteorologikoak eragiten ditu.

2020an, COVID-19ak sortutako osasun-krisiak nahasmendua eragin zuen munduan, maila guztietan. Pandemiak agerian utzi zituen eguneroko bizitzan genituen hamaika gabezia, eta krisi klimatikoaren eta haren ondorioen gaineko kezka bizkortu zuen. Pandemia horren ondorioz, urrun ikusten genituen arrisku horiek berehalako bihurtu ziren. Hala ere, egiaz, ingurumen-arriskuek epidemia- eta pandemia-agerraldiek baino arrisku larriagoak dakartzate, eta gero eta kontzientzia handiagoa dago egiturazko aldaketak egitearen beharraz, etorkizuneko hondamendi ekologikoak saihesteko.


Berotze globalari buruzko kezka handiko une batean gaude, eta guztiok, banaka zein taldean, egoera horri egin diezaiokegun ekarpen positiboari buruz hausnartzen ari gara. Donostia Zinemaldian, uste dugu kulturak eta horrelako kultur ekitaldiek gauzatzen diren komunitatearekiko nolabaiteko erantzukizuna dutela, baita lan egiteko modu berriak proposatzeko aukera ere.

Murgildu garen ingurumen-krisi honek etorkizunera begirako aukera-gune bat sortu du. Ingurumena zaintzearekin eta Zinemaldi jasangarriago bat egitearekin duen konpromisoan, Zinemaldiak jasangarritasunaren memoria, karbono-aztarna neurtzeko txostena eta ingurumen-jasangarritasunaren ebaluazioa egin ditu, 2022ko irailaren 16tik 24ra bitartean egindako 70. edizioan.

02. Helburuak

Txosten honen helburua da jaialdiaren emisioek ingurumenean duten inpaktua neurtzea. Emisiook izan daitezke zuzenekoak, erakundeak berak kontrolatzen dituenak (1. irismena deritzona); Zinemaldiak energia kontsumituzetik eta erostetik datozenak (2. irismena), eta Zinemaldiaren jarduerak eraginak izanik hirugarrenen –esaterako, kontratatutako hornitzaileek– kudeatzen dituztenak (3. irismena).

Hala, emisioen jatorria eta arrazoia aztertu dira, eta zenbait ondorio atera dira. Horiei esker, ingurumen-inpaktua murrizteko lan egiten jarraitu ahal izan da, eta oinarri gisa erabil daitezke Zinemaldiari hurrengo edizioetan eboluzionatzen jarraitzeko estrategia zehatz bat emango dion epe ertainerako plan bat artikulatzeko.





03. Metodologia

Karbono-aztarna neurtzeko, Zinemaldiak Creast enpresarekin egin du lan. Aipatutako etxea teknologia digitalean espezializatuta dago eta, horren bidez, entretenimenduaren sektoreko enpresa eta profesionalak beren karbono-aztarna ezagutzen, aurreikusten eta murrizten laguntzen die. Teknologia horrek GHG-CO₂eq neurketa-protokoloa erabiltzen du, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren (MITECO) emisio-faktore ofizialak erabiliz eta, MITECOk oraindik emisio-faktorerik esleitu ez dizkien datuak kalkulatzeko, Nazio Batuen Klima Aldaketari buruzko Esparru Hitzarmenaren (UNFCCC) emisio-faktore ofizialekin osatuz.

Prozesu osoak Europako UNE-EN ISO 14067:2018 Arauak (Produktuen karbono-aztarna. Kuantifikaziorako eskakizun eta jarraibideak) neurketetarako ezartzen duen kalitate-bermea betetzen du. Produktuen karbono-aztarna. Kuantifikatzeko betekizunak eta jarraibideak.

Berotegi-efektuko gasak

Ur-lurruna (H₂O)

Karbono dioxidoa (CO₂)

Metanoa (CH₄)

Oxido nitrosoa (N₂O)

Ozonoa (O₃)

Zer da karbono-aztarna?

Zuzenekoak


Zeharkakoak

Nola neurtzen dira emisio horiek?

1. irismena

2. irismena

3. irismena





04. Prozesua

Zinemaldiaren karbono-aztarna neurtzeko prozesua 2022ko ekainean hasi zen, eta urte bereko abenduan amaitu. Hauek izan dira lan-prozesu horren ardatz nagusiak:

Hornitzaileen mapa

Hornitzaileen mapa bat egin da eta, horri esker, Zinemaldian egiten diren jarduera guztien osaera zehatz-mehatz ezagutu da. Mapa hori aztertuta, kontratazioek sortutako emisioak kalkulatu ahal izan dira.

Zinemaldia bisitatzea

Creast enpresaren lantaldea Zinemaldiaren 70. edizioan izan zen, Zinemaldian alde zuzen egindako ikerketa-lan guztia betetzen zela egiaztatzeko eta hots- eta argi-kutsaduraren ebidentziak jasotzeko.

Bertaratutako mugikortasunari buruzko inkestak

Mugikortasun-inkesta bat gehitu da akreditazioa eskatzeko onlineko prozesuan eta, horri esker, akreditazioa dutenek erabilitako garraioaren lagin bat lor daiteke. Inkesta horrek, gainera, akreditaziorik gabeko ikusleen mugikortasuna zenbatesten du, eta lagina zinemaldira bertaratuko den publikoaren zenbatespena estrapolatzen du.

Ibilgailu-flota

Mugikortasunaren inpaktua kalkulatzeko, aurrez deskribatutako inkesten bidez, eta lekualdaketez arduratzen den hornitzaileak (vallina) emandako informazioarekin. Azken horrek joan-etorri guztiak egiteko behar den erregai-kantitatea partekatzen du.

Ostatatzea

Filmetako lantaldeek eta epaimahaiek erreserbatutako hotel-gauen zerrendak ostatatzearen ingurumen-inpaktua kalkulatzeko balio du. Horrez gain, hiriaren kanpotik etorri diren akreditaziorik gabeko bisitarien ostatatzea ere zenbatesten da.

Egoitza nagusiei buruzko informazioa

Egoitza bakoitzeko energia- eta ur-kontsumoari buruzko informazioa biltzen da. Energia- eta ur-kontagailuak irakurritik, kursaaleko, tabakalerako, san telmoko, victoria eugenia antzokiko eta belodromoko kontsumoa lortzen da, baita trueba, principe, antiguo berri eta antzoki zaharra zinemetakoa ere.

Beste egoitza batzuei buruzko informazioa

Ekitaldi edo festaren bat berean hartu duten beste leku batzuen ingurumen-inpaktua neurtzeko, ekitaldiaren tamaina (bertaratuen kopurua) eta creast enpresaren big data hartzen dira oinarri. Azken horrek ehunka ekitaldiri buruzko informazioa dauka, eta karbono-aztarna kalkulatzeko, energia- eta ur-kontsumoari buruzko informaziorik izan gabe. Materialak eta beste emisio-kategoria batzuk kalkulatzeko, ekitaldiak apaintzen dituzten hornitzaileen materialen inbentarioa eta erakundearen esku dauden catering-zerrendak erabiltzen dira.

Babesleak

Babesleatzako jardueraren karbono-aztarna neurtzeko informazioa eman duten babesleen lagin esanguratsu bat elkarriketatu da. Karbono-aztarna globalari egiten dioten ekarpenaren batezbestekoa kategoriara egin da eta, kalkulu horretatik abiatuta, beren ingurumen-inpaktuari buruzko informazioa eman ezin izan duten babesleei estrapolatu zaie.

Cateringak

Zinemaldian egindako cateringak aztertuta, batezbesteko bat ateratzen da eta horietako bakoitzera bertaratutako pertsonen kopurua lortzen da. Horrela kalkulatzeko jan-edanaren kontsumoa.

Jan-edanaren kontsumoaren neurketak barne hartzen du zinemaldiak azpikontratutako enpresek kanpoko lekuetan antolatzen dituzten ekitaldi eta jaietako eskaintza. Guztira 77 ekitaldi antolatu ditu jaialdiak 70. Edizioan.

Materialak

Zinemaldia apaintzeko erabilitako, inprimatutako eta instalatutako materialen inbentario bat dago, horiek hornitzeko kontratatutako hornitzaileek emana.

Hondakinak

Zinemaldiko garbiketa-taldeak egoitza guztietan sortutako hondakinen pisua jasotzen duen txosten bat aurkeztu du.



05. Neurketa


Atal honetan, Zinemaldiko karbono-aztarna neurtzeko lanaren azken emaitza azalduko da.

Guztizko karbono-aztarnaren banakapena, emisio-kategorien arabera


Guztizko karbono-aztarna emisio-kategorien arabera bana daiteke. Creast enpresaren metodologiak 7 kategoriatan banatzen ditu emisioak, monitorizazioa hobetzeko:

1. Ostatatzea
2. Mugikortasuna
3. Energia
4. Cateringa
5. Materialak
6. Hondakinak
7. Ura

Emisioen iturri nagusiak mugikortasuna eta ostatatzea dira, bi kategorien artean karbono-aztarnaren % 78 bildu baitute. Materialen erabilera da emisioen hirugarren iturri nagusia, % 18ko ekarpena egin baitu.



Mugikortasuna	1.659.071,74 kg CO ₂ eq
Kontsumo elektrikoa	48.416,65 kg CO ₂ eq
Catering	86.748,41 kg CO ₂ eq
Materialak	782.878,09 kg CO ₂ eq
Hondakinak	8.927,71 kg CO ₂ eq
Ostatatzea	1.561.124,88 kg CO ₂ eq
Ura	479,11 kg CO ₂ eq





Ostatatzea


Ostatatzearen karbono-aztarnaren banakapena

Ostatatzearen karbono-aztarnak ekarpen handia egiten dio Zinemaldiaren guztizko karbono-aztarnari. Ostatatzeak barne hartzen ditu hotel batean ostatu hartzearen ondoriozko jarduera guztiek sortutako emisioak, esaterako, gela eta eremu komunak argiztatzeko eta igogailuak eta ate automatikoak mugitzeko erabiltzen den energia; garbiketa-zerbitzua, logelen zerbitzua barne; hotelak bere bezeroen eskura jartzen dituen materialen erabilera, besteak beste, ohea eta izarak, telebista, xaboiak, etab. Material horiek guztiak ekoizteko prozesuak aintzat hartzen dira eta beren balio-bizitzan izango duten erabilera-kopuru zenbatetsiaz zatitzen dira. Guztia urtez urte eguneratzen diren emisio-faktoreetan jasotzen da.

Karbono-aztarna murrizteko plana

Creast enpresak proposatzen duenez, jarduera honen jasangarritasuna hobetzeko, ostatueta jasangarritasun-neurriak hartu behar dira, ostatatzearen ingurumen-efizientzia hobetzeko. Hala, Creastek zenbait gomendio egin ditu: dauden hotel-eskaintzak sakon ikuskatzea, erakunde horiek kontzientziatzea eta, Zinemaldiaren jasangarritasuna hobetzen lagunduko duten neurriez gain, hiriko ingurumen-inpaktua urtean zehar hobetzen lagunduko duten neurriak iradokitzea.

Ostatatzearen emisioak, bertaratuen profilaren arabera





Mugikortasuna

Mugikortasunaren karbono-aztarnaren banakapena

Mugikortasuna da, ostatatzearekin batera, Zinemaldiaren emisio-iturri nagusia. Halaber, mugikortasunak emisio-faktore ofizialetan islatzen ditu ibilgailuak erabiltzeak dakartzan jardura guztiak, esaterako, erregaiak erretzea, hegaldi batean bezeroari arreta emateko zerbitzua, mantentze-lanetako jarduerak, etab. Faktore horiek urtero argitaratzen dira eguneratuta, eta desberdinak izaten dira erabilitako ibilgailuaren arabera.

Karbono-aztarna murrizteko ezarritako neurriak

Aurreko urteetan bezala, Audi etxearen ibilgailu elektrikoen flota bat erabiltzen da. Bilboko, Hondarribiko eta Biarritzeko aireportuetara egindako 2.348 bilketa-zerbitzuetan (120.000 kilometro inguru), auto elektrikoak erabiltzean 33 tona CO₂eq (33.368,4 kg CO₂eq) saihesten direla kalkulatu da.

Karbono-aztarna murrizteko plana

Mugikortasunak Zinemaldira joatea errazten du. Creastek garraioaren ingurumen-efizientzia hobetzeko zera proposatu du: erakundeak ibilgailurik efizienteenak alokatzea eta erakundearen esku ez dauden gainerako garraiobideak ikuskatzea, eta Zinemaldiaren jasangarritasuna hobetzen duten garraiobideen alde kontzientziatu eta dibulгатzea. Ikusleak Zinemaldira joan daitezten sustatzen jarraitu behar da, ekitaldira joateko bitarteko eraginkorrenen berri emanez.

Zuzenean Zinemaldiaren mende dauden bidaien eta gonbidatuentzat erosten direnen edo erakundeko kideek urtean zehar egiten dituzten inguruan, epe ertainerako estrategia bat landuko da, eta gonbidatuen mugikortasun-politika bat ezarriko da garraioaren efizientzia hobetzeko. Kendu gorri dagoena.

Mugikortasun-estrategia horrek lehentasuna eman behar dio trenari hegazkinaren gainetik, ahal den guztietan, eta ingurumenaren aldetik eraginkorrenak diren aire-konpainiak aukeratu behar ditu, trena ordezkotzeko aukera bideragarria ez denean. Aire-konpainiak jasangarritasun-neurri garrantzitsuak hartzen ari dira, esaterako, bioerregaiak erabiltzea edo hegaldi bakoitzaren karbono-aztarna konpentsatzea. Urtero eguneratuko da aire-konpainia guztien sailkapena, ingurumen-efizientzia kontuan hartuta.

Lurreko garraioari dagokionez, Zinemaldiko garraio-flotaren ingurumen-efizientzia hobetzen jarraitzen da, karbono-aztarna murrizteko, eta erakundeko langileak kontzientziatzeko lan egiten da, oinez, bizikletaz edo garraio publikoan mugitzea hauta dezaten. Lan hori Zinemaldiaren hornitzaileei eta laguntzaileei helaraziko zaie; horretan, hornitzaileen flotaren efizientzia baloratuko da eta mugikortasun ekologikoago bat iradokiko zaie, mugikortasun garbi baterako trantsizioa bizkortzeko kontzientziatze aldera, normalean kontratatzen diren erakunde eta profesionalen Zinemaldiarekin lankidetzan aritzeko memorandumak eta baldintzak bidaliz.


Etorkizunean karbono-aztarna murrizteko funtsezko puntuak

- Ibilgailu elektriko edo hibridoaren flota pixkanaka handitzea.
- Tokian-tokian mugitzeko bizikletak, patinak eta ibilgailu jasangarriak erabiltzeko buruz kontzientziatzea.
- Zinemaldira joateko ibilgailuak partekatzeari buruz kontzientziatzea.




Mugikortasuna

Mugikortasunaren emisioak, bertaratuen profilaren arabera



Akreditatuentzako inkesta digitalean lortzen den mugikortasun-kasuistika akreditaziorik gabekoetara estrapolatzen da, eta kanpo uzten dira hegazkinez egindako joan-etorriak, publikoaren proportzio oso txiki bat dela ulertzen baita.

Akreditatuek erabilitako ibilgailuen tipologia





Energia

Energia-kontsumoaren karbono-aztarnaren banakapena

Energiaren karbono-aztarnak energiaren ekoizpen- eta hornidura-prozesu osoa hartzen du kontuan, konpainia elektriko bakoitzaren arabera; hain zuzen, MITECOk urtero argitaratzen du horien emisio-faktorea, KWh bakoitzaren kontsumoaren atzean sortutako emisioen batezbestekoa aztertu ondoren.

Karbono-aztarna murrizteko ezarritako neurriak

Arlo honetan, neurri gisa, Kursaaletako argiztapenaren denbora murriztu da 2022an. Eraikinaren argiak sentzore batekin pizten dira, zeina kanpoko argiaren arabera aktibatzen den, 19:30ak eta 20:00ak artean. Eraikina 2:15 aldera itzaltzen da; 2021ean, berriz, 4:30ean. Gutxi gorabehera 2 tona CO₂eq murrizten direla kalkulatu da. Gainera, Zinemaldiak 2021ean hasi zuen LED argiztapenerako trantsizioarekin jarraitzen da.

Karbono-aztarna murrizteko plana

Energia-kontsumoa erakundearen jardura-eremuaren barruan dago, eta komenigarria litzateke energia berriztagarrietarako trantsizioari ekitea.


Komenigarria da, halaber, ekitaldirako eta erakundearen urteko jarduerarako erabiltzen diren eraikin, bulego, makina eta gailuen auditoretza bat egitea, energia-efizientzia ahal den neurrian hobetzeko.

Helburua epe ertainerako estrategia bat planifikatzea da, energia-kontsumoa murrizteko eta kontsumitutako energia iturri % 100 berriztagarrietatik datorrela bermatzeko.

Etorkizunean karbono-aztarna murrizteko funtsezko puntuak

- Egoitzak eta bulegoak argiztatzeko LED teknologiarako trantsizioarekin jarraitzea.
- Aldatu behar den etxetresna elektriko oro aldatzea eta, horren ordez, energia-efizientzia handieneko etiketa (A++) duen bat jartzea.
- Ahal den heinean, egoitzen gaueko pizte-ordutegiak murrizten jarraitzea Zinemaldiaren egunetan.
- Ordenagailuak eta etxetresna elektrikoak itzaltzeko politikak berraztertzea.

Energia-kontsumoaren ondoriozko emisioak, egoitzen eta emisioen jabeen arabera





Cateringa

Jan-edanen kontsumoaren karbono-aztarnaren banakapena

Zinemaldiak egindako cateringak zehatz-mehatz aztertu dira. Elikagaien emisioetan, produktuen ekoizpen- eta banaketa-prozesuekin lotutako faktore ugari hartzen dira kontuan. Prozesu osoan, barazkiak hazteko eta animaliak hidratatzeko behar den uretik hasi eta produktua saltokira garraiatzen den arte, faktore askok dute eragina haren ingurumen-inpaktuan. Horren guztiaren batezbestekoa egiteko, emisio-faktoreak erabiltzen dira. Azkenok desberdinak izaten dira elikagaien eta edarien tipologiaren arabera, eta urtero eguneratzen dira.

Karbono-aztarna murrizteko ezarritako neurriak

Arlo honetan, neurri gisa, 0 KMko catering bat eman zen 2022an filmetako lantaldeentzako koktelean, Eusko Jaurlaritzaren laguntzari esker.

Karbono-aztarna murrizteko plana


Creast enpresak beste auditoretza bat egitea proposatzen du menuei eta lehengaiaren jatorriari buruz, 0 kilometroko produktuan oinarritutako epe ertaineko estrategia bat prestatze aldera; hau da, helburua da lehengai guztia tokikoa izatea, joan-etorriak saihestuz, eta tokiko ekonomia sustatzea. Elikagai guztiak sasoikoak eta bidezko merkataritzatik eratorriak izatea, eta haien ekoizpen-prozesuek jasangarritasuneko jardunbide egokiak erabiltzea. Era berean, garrantzitsua da eskaintzen den dieta orekatua eta osasungarria izatea eta, produktuen tipologiaren balantze egokiari esker, elikagaien ekoizpen-prozesuekin lotutako emisioak mugatzea.

Adibidez, haragi-produktuen erabilera murrizteak, halakoak ezabatu gabe baina nutrizio-balio proportzional eta arrazoizkoa emanez, elikadurarekin lotutako emisioak mugatzen lagun dezake, eta ekitaldietara joaten direnek ez dute zertan aldaketa handirik sumatu eskaintza gastronomikoan.

Etorkizunean karbono-aztarna murrizteko funtsezko puntuak

- Pixkanaka, erabat 0 kilometrokoak (0 km), sasoikoak eta emisio txikiko ekoizpen-prozesuetan eginak diren produktuak erostea bermatuko duen politika bat ezartzea.
- Politika zorrotzak erabiliz, kasurik txarreanean baxera eta mahai-tresna berrerabilgarriak edo biodegradagarriak baino ez direla erabiltzen bermatzea. Jarraibide horiek hornitzaileei eta babesleei helaraztea.
- Zinemaldiaren ahalik eta hurbilekoena den proiektu sozial bat aurkitzea, elikagaien eta edarien soberakinak hari emateko.
- Energia-efizientzia bermatzea Zinemaldiaren esparruan ematen diren otorduak prestatzeko prozesuan. Horri buruzko politika bat ezartzea sukaldaritzaz arduratzen diren hornitzaileentzat.

Cateringetik eratorritako emisioak, horien jabearen arabera





Materialak

Materialen erabileraren karbono-aztarnaren banakapena

Zinemaldian material ugari erabiltzen dira. Besteak beste, markaren sustapenerako eta irudirako, gonbidatuen eta publikoaren segurtasuna bermatzeko, erakundeak egoitzetan egin duen lana errazteko, eta egoitzak, ekitaldiak eta eszenografiak eta abar apaintzeko.

Materialen emisio-faktoreek ere beste faktore asko hartzen dituzte barnean, esaterako, lehengaia erauzteko prozesua, ekoizpen- eta fabrikazio-prozesua, saltokietarako banaketa, eta abar. Guztiaren batezbestekoa urtero eguneratzen diren emisio-faktoreen bidez egiten da. Faktore horiek desberdin aplikatzen dira material berrietan edo erosi direnetan eta berrerabili edo alokatu diren materialetan; izan ere, azken kasu horretan, materialaren ingurumen-inpaktua berorrek izango duen batez besteko erabilera-kopuruaz zatitzen da.

Karbono-aztarna murrizteko ezarritako neurriak

Arlo honetan, neurri gisa, papera murriztu da 2022an; hain zuzen, edizioaren katalogoa gutxiago inprimatu da. Filmen gidaliburua 6.000 aletara murriztu da. Hala, 653 kg CO₂eq murriztea lortu dela zenbatesten da.

Karbono-aztarna murrizteko plana


Materialen ingurumen-inpaktua murrizteko estrategia bat egiteko, beharrezkoa da erabilitako material guztiak ikuskatzea, eta material horien ordezkioak edo bestelako erabilera batzuk aurkitzea, haien karbono-aztarna murrizten laguntzeko.

Zinemaldiak denbora asko darama ildo horretan lanean, eta 2022ko edizioan, jadanik, paper inprimatuaren kopurua nabarmen murriztu zuen, eskuz bozkatzeko prozesuen ordezketa digitala ezarri eta argitalpenen kopurua murriztu zuelako.

Etorkizunean karbono-aztarna murrizteko funtsezko puntuak

- Paperik gabeko jaialdi bat izan arte paperaren kontsumoa murrizten jarraitzea, paperaren erabilera murrizteko politikak (aldizkariaren inprimaketa, welcome packa, etab.) dakartzaten erabaki progresiboak hartuz.
- Paperaren erabilera desagerrarazteko prozesuan, erabiltzen den paper guztia birziklatzen dela bermatzea.
- Plastikoen erabilera murriztea erosketetan, bilgarrietan eta ontzietan, plastikorik gabeko jaialdi bat izan arte, plastikoaren erabilera murrizteko politikak (onlineko erosketak, hondakin plastikorik eragiten ez duten erosketak, etab.) dakartzaten erabaki progresiboak hartuz.
- Material berriak erosi beharrean, berrerabiltzearen eta bigarren eskuko produktuak erostearen aldeko apustua egiten jarraitzea, ildo horretan politika argi bat zehaztea, eta langileak eta hornitzaileak kontzientziatzeko hedatzea.

Materialen ondoriozko emisioak, tipologiaren arabera





Hondakinak

Hondakinen karbono-aztarnaren banakapena

Hondakinen ingurumen-inpaktua ez da esanguratsua karbono-aztarnaren adierazlean, baina inpaktu handia du ingurumenean epe ertain eta luzera.

Karbono-aztarna murrizteko ezarritako neurriak

Arlo honetan, neurri gisa, hondakinak kudeatzen dituen lantalde bat sortu da 2022an, hondakinon bereizketa bermatzeko. Hala, birziklatzeko estazio berriak ezarri dira eta hondakinak bereizi eta pisatu dira. Zenbatesten denez, behar bezala seinaleztatutako birziklatze-estazio nahikoak ezartzeak erdira murrizten du hondakinen karbono-aztarna.

Karbono-aztarna murrizteko plana

Sortutako hondakinak murrizteko epe ertaineko estrategia bat lantzen jarraituko da, erabilitako materialekin lotuta. Halaber, birziklatze egokia hobetzen jarraituko da; batez ere, edukiontzien erabilera egokiaren inguruan kontzientziatuko da eta sortutako hondakinak murrizten dituzten jardunbide egokien jarraipena egingo da.


Etorkizunean karbono-aztarna murrizteko funtsezko puntuak

- Hondakinen kudeaketa egokian lan egiten jarraitzea.
- Hondakin guztiak bereizteko irtenbideak aurkitzea, behar bezala birziklatu daitezen.
- Beira bereizteko eta behar bezala birziklatzeko irtenbide bat bilatzea.
- Birziklatzeko edukiontzien erabilera egokiari buruz jendea kontzientziatzen lan egitea.
- Birziklatzearen jarraipena egiteko sistema bat identifikatzea, eta prozesuaren inguruko txostenak jasotzea.




Hondakinak

Hondakinen emisioak, egoitzen eta emisioen jabeen arabera



Hondakinen pisua, tipologiaren arabera





Ura

DUr-kontsumoaren karbono-aztarnaren banakapena

Ur-kontsumoa ia ez da islatzen karbono-aztarnaren adierazlean, haren balio-kateak ia ez baitu emisiorik sortzen. Alabaina, ondasun preziatu horren kudeaketa oso garrantzitsua da Zinemaldia antolatzeko orduan, eragin positiboa baitu ingurumenean.

Kontsumitutako ur-kantitateak barne hartzen du hala garbiketarako nola higienarako eta kontsumo pertsonalerako erabiltzen den ura.

Karbono-aztarna kalkulatzeko informazioa lortzea eta hipotesiak ezartzea

Karbono-aztarna murrizteko plana

Ur-kontsumoaren efizientzia hobetzen jarraitzeko, kontzientziazioa sustatzen duen estrategia bat planifikatuko da, pertsona bakoitzaren ohiturekin zuzenean lotuta dagoelako eta Zinemaldiak jaialdiko parte-hartzaile eta bertaratu guztien laguntza behar duelako arlo hori hobetzeko.


Etorkizunean karbono-aztarna murrizteko funtsezko puntuak

- Ur-kontsumoa pixkanaka murriztea.
- Tangen karga murriztea egoitza eta bulego guztietan.
- Garbitzeko ur-kontsumoaren efizientzia maximizatzea.
- Garbiketa-produktu biodegradagarriak erabiltzeko politika ezartzea eta, hala, ur grisetan hondakin toxikoak sortzea saihestea. Politika hori garbiketa-jarduerekin lotutako hornitzaile guztiei helaraztea, baita catering-hornitzaileei ere.
- Ur-kontsumoa ondo kudeatzeko kontzientziazioan lan egitea.




Ura

Uraren emisioak, egoitzen arabera



Ur-kontsumoaren guztizkoa



Guzti ur kontsumitu da
1.392.764 litr

06. Hots- eta argi-kutsadura

Zinemaldian, neurketak luxmetro eta sonometro kalibratuekin egiten dira, eta guztiek tarte gomendatuaren barruko balioak eman dituzte.

Hots-kutsaduraren neurketan, goreneko maila 79,2 dB-koa izan zen. Argi-kutsaduraren neurketan, berriz, 341,3 luxekoa izan zen gailurra.



07. Konpentsazioa

Zinemaldiko karbono-aztarnaren % 68.5 konpentsatuko da.

Horretarako, 2.840,81 tona CO₂eq kenduko dira, Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtza konpentsazio-proiektuarekin basoberrituz.